



# Inaxito Albisu gogoan

Itziar Aduriz Agirre

**A**tzo arrats partean. Telefonoa. Ama da, jartzeko. Ezin dut orain, txikia lokartzen ari naiz. Gero deituko diot.

Deitu dut. "Ba al dakizu nor hil den?". Azken boladan, maiz, gure amarekin dugun hitz-asptuaren lehen esaldia izaten da hori.

Inaxito.

...

Orain dela bi aste ikusi nuen Erreterian. Semearen dendaren atean zegoen, jendez inguraturik, semea ondoan zuela. Ni presaka nindoan, enkarguak egiten. Gelditu nintzen pixka batean. Aspaldiko hilabeteetan ikusi gabe, ez nion itxura txarrik hartu. Presaka nindoanez eta jendea zuenez, agurtu gabe pasa nintzen, pentsatuz, hurrengoan kasu egingo niola.

Hara ba, hori burutik kendu ezinik nabil. Gure Axularrek esan zuen ba aspaldi: "... zenbat kalte egiten duen, luzamendutan ibiltzeak, egitekoen geroko uzteak". Ematen du ez dugula ikasten.

Eta burutik kendu ezinik nabilelako, gaurko pentsatuta neukana alde batera utzi dut eta barruak

eskutzen didana konpartitu nahi dut zuekin. Hau da, Inaxitoren omenez bi hitz esan nahi dizkizuet, batez ere ezagutzen ez zenutenontzat.

Oso sakon ezagutu gabe ere, antzematen zen izaera konplexuko gizona zela, mila kantoikoa.

Lehen begi kolpean ikusten zenion itxura berezia, altua baitzen oso eta argala, ileurdin luzexka, eta bere aurpegia, argala izanik, koska handikoa. Bereziki gogoan dut bere begiratua, zuzena ala zehar begiratua, beti barrurago ikusi nahiko balu bezala. Hori, hizketan hasten zen arte, orduan hasten baitzen festa! Sutsua, kartsua, bakarra.

Herrian maiz ikusten zen kaletik. Denok ezagutzen genuen eta maite genuen. Izan ere, gehixeago ala gutxixeago, esango nuke denok izan dugula aferaren bat, loturaren bat berarekin.

Gaur egunean berrogeita hamar urte inguru dugun erreteriar euskaldunontzat eredu izan zen (batez ere guretzat!). Euskaldun oso izateko egin behar izan genuen esfortzuan erabat lagundu gintuen. Zuzenean ala zeharka. Zuzenean, euskarazko klaseak ematen zituelako eta euskarak herrian aurrera egin zezan behar ziren oinarriak jarri zitue-

lako. Zeharka, guk euskara berreskuratzeko ala alfabetatzeko behar genuen sarea sortu zuelako. Euskara sare sozialean sartzen lagundu zuen, interresgune bihurtuz. Giltzarria izan zen.

Eta izan da, noski. Izan ere, gerora ere eta azken momentura arte euskararen aldeko langile nekaezina izan da. Adibide gisa, hortxe dugu Lau Haizetara euskaldunon elkartearekin zuen lotura estua (ohorezko bazkide izendatu zuten), eta bertako komunikabideetan egiten zituen kolaborazioak.

Gogoan dut Bartzelonako Unibertsitateko nire ikasle bat, Josep del Rio, Errenteriako hizkerari buruz tesia egiten ari zenean laguntza eske joan

gintzaizkionean, zenbat lagundu gintuen adin desberdinetako bertako jendea bilatzen herriko hizkera jasotzeko. Lau Haizetarako guztiak martxan jarri zituen gure emaitza ona izateko. Eta hala izan zen, bere laguntzari esker.

Euskararekiko atxikimenduan aparta baldin bazen, bere aieka bihozbera ez zen ba, makala (ez al daude ba biak lotuak?). Hori ere gertutik ezagutzeko aukera izan nuen, gure etxean genuen arazo handi batean lagundu gintuenean. Zenbat ordu hizketan, zer indarra ematen zuen, dena musu-truk!

Esker ona azaldu nahi diot guztiagatik eta agur esan, merezi dituen laudorio guztiekin.

Nire doluminak familiari.

